

Duatletek **bihar**
Altsasu hartuko
dute



Kirolak >> 11

Sakatxartela asteburua,
Beleixeguaixe txartela erabiliz
sariak irabazteko **aukera** izanen
da **martxoko azken** asteburuan



Sakanerria >> 25

Sakanarako bide-orria

Sakana 2020 Plan Estrategikoan elikadura, industria, energia eta turismoa dira ildo estrategikoak

Hainbat arlotako iraunkortasunean oinarrituta lanpostuak sortzea erraztea du helburu

Apirilaren 3ra arte planari ekarpenak egin ahal zaizkio garapena@sakana-mank.com bidez

>> 6-7



Bihar, 17:30ean, Iruñeko Antoniutti parketik abiatuko da Nafarroako euskal komunitateak deitutako manifestazioa.

Euskaraz bizitzeko nahia ozen eta tinko aldarrikatzera



Lan istripuek 2013an %9,43 egin zuten behera >> 3



Dena prest dute Etxarrin herri galdeketa egiteko >> 25

**ZURE NEGOZIOA
GIDAN
IRAGARTZEKO
DEITU**

948 56 21 07
618 88 26 27



ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Alumnioa-P.V.C-Mistoak

GURE
REMOVE
PLANA

%20^{ra}
arteko
deskontua

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Lexuri

Zorionak polita! Zu urtiak ospatzekin batia, txoriyek kantas hasten die, zengatik izenkua? 9 muxu Oinatz eta Enaitzen partez. Iyendien puztuko ttugu kandelak.



Igor

ZORIONAK maitia!! Zu ere 40etara hurbiltzen e! Lasai, gero eta guapoago zaude. AMZ.



Emili

ZORIONAK amama!! Altsasuko eta Etxarri Aranazko bilobek egun polita opa dizugu. Musu erraldoi bat. Asko maite zaitugu.



Patxi

ZORIONAK maitia! Merezi duzun bezala ospa ezazu. Ana eta familiararen partez. Muxus.



Uxue

ZORIONAK eta mila muxu zuretzat, bihotza!! Zure aitaren partez.



Maria eta Josu

Hau zortea zuena!! Gozatu zuen betaz merezi duzue eta!! Altsasuko Eroskiko zuen lankideen partez!! Muxu potolo bat eta biharko afarian elkar ikusiko dugu.

Bazkideek deskontua

Bakarra:

3,50€

Bikoitza:

7€

marsuak

21-27

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Epa! Martxoaren 22an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Demode Quartet.**

Governors eta Nekez. Martxoaren 22an, larunbatean, 23:00etan Etxarri Aranazko gaztetxean.

Proiektzioa

X-Pyr 2012 eta X-Alps 2013, oinez eta parapentean. Martxoaren 22an, larunbatean, 18:30ean Altsasuko lortia kultur gunean. **Iñigo Gabiria.** Baiza parapente taldea.

Zinema

La vida de Adele. Martxoaren 21ean, ostiralean, 21:45ean eta martxoaren 23an, domekan, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

La gran belleza. Martxoaren 21an, ostiralean, 22:00etan eta martxoaren 23an, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Vaya pavos. Martxoaren 23an, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Mendi irteera

Imotz, itzulia. Martxoaren 23an, igandean. **Irurtzungo Iratxo mendi taldea.**

Saioa. Martxoaren 23an, domekan. Altsasuko Mendigoizaleak.

Txirindula irteerak

Sorginetzeko trikuharria. Martxoaren 23an, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 50 km. **Burunda mendi bizikleta taldea.**

Hitzaldiak

Sakana 2020 plan estrategikoaren aurkezpena. Martxoaren 24an, astelehenean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. Martxoaren 25ean, asteartean, 19:00etan Irurtzungo udaletxean eta martxoaren 26an, asteazkenean, 19:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean.

Erakusketak

Pintura eta eskultura. Martxoaren 21era arte, Urdiaingo Kaluxa tabernan. **Angel Antonio Agirre.**

Mayar emakumeak, duintasuneko koloreak. Martxoaren 23ra arte, Irurtzungo San Martin jubilatu elkartearen.

Pintura erakusketa kolektiboa.

Martxoaren 30era arte Irurtzungo La Tahonan eta Pikuxarren.

Saiak, elfoak, mariorrazak, gizonak eta emakumeak. Apirilaren 5era arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domekan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean.

Clarity. Apirilaren 6ra, astegunetan 18:00etatik 20:00etar eta larunbatetan 11:00etatik 14:00etara Irurtzungo udaletzeko batzar gelan. **Crana fundazioa.**

Tailerrak

Arte birziklatua. Martxoaren 21ean, larunbatean, arratsaldean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Bestelakoak

Gaztainondoan lantaldea sortzeko. Martxoaren 21ean, ostiralean, 19:00etan Bakaikuko auzoan.

Apirilak 13ko egitarau aurkezpena. Martxoaren 21ean, ostiralean, 20:30ean Etxarri Aranazko plazan. **A13** ekimena.

Calçotada herrikoia. Martxoaren 22an, larunbatean, 13:00etan Etxarri Aranazko Larrañeta elkartearen. **A13.**



Cranaren Clarity erakusketa.

Gaupasa. Martxoaren 22an, larunbatean, 23:59ean Egiarretako Santialde elkartearen, urteurrenagatik.

Deialdiak

Alternatiba elektrikoak. Martxoaren 21ean, ostiralean, 19:00etan Irurtzungo udaletxean. **Hizlariak: Goienar eta Energia Garako Kideak.**

Udalak eta biok euskaraz. Martxoaren 21ean, ostiralean, 18:00etatik aurrera Altsasuko Gure Etxea eraikinean. **EHE.**

Hipotekek kaltetutakoan Plataforma. Martxoaren 21ean, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxeko lehen solairuko 1. gelan, bilera.

Isunen kontrako batzarra.

Martxoaren 21ean, ostiralean, 18:00etan Altsasuko lortia kultur gunea. **Ospa.**

Euskal Presoak Euskal Herrira!

Martxoaren 21ean, ostiralean, 20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzea.

Euskal Presoak Euskal Herrira!

Martxoaren 23an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Sakanako Langabetuen Asanblada.

Martxoaren 24an, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

Ostiralero **SAIOA** 9:30etik 10:30era
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

beleixe ^{107.3 FM} *online*
www.guaixe.net

Piztu irratia!

ASTEBURUKO AGENDA
ASTEKO ERREPASOA:
albisteak, kirolak,
Sakanako plan estrategikoa,
Etxarriko herri galdeketa,
Duintasun Martxa...

Esataria: *Eneida*

SAKANA

Lan istripuak Sakanan						
Udalerrria	2013			2012		
	Arinak	Larriak	Guztira	Arinak	Larriak	Guztira
Altsasu	80	1	81	101	2	103
Arakil	6	0	6	6	0	6
Arbizu	8	0	8	8	0	8
Arruazu	0	0	0	0	0	0
Bakaiku	10	0	10	7	0	7
Ergoiena	0	0	0	1	0	1
Etxarri Aranatz	13	0	13	19	0	19
Irañeta	0	0	0	1	0	1
Irurtzun	8	0	8	27	0	27
Iturmendi	2	0	2	0	0	0
Lakuntza	61	0	61	49	0	49
Olatzagutia	22	0	22	21	0	21
Uhartea Arakil	17	1	18	11	1	12
Urdiain	10	1	11	14	0	14
Ziordia	0	0	0	0	1	1
Guztira	237	3	240	261	4	265



Langilea lanean.

Lan istripuek %9,43 egin dute behera

Baja eragin zuten hiru istripu larri izan ziren pasa den urtean, haietatik bi abeltzaintzan

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak jakinarazi digunez, 2013an Sakanan langilearen baja eragin zuten 240 lan istripu izan ziren. Haietatik 237 lan istripu arinak izan ziren eta 3 larriak. 2012 urtearekin alderatuta 24 lan istripu arin gutxiago eta larri bat gehiago. Lan istripua izan zuten langile gehienak (226) besteendako ari ziren lanean. Lan istripuaren ondorioz baja hartu zuten autonomoak 11 izan ziren. Baja eragin zuten dozena bat istripu lantokirako bidean izan ziren.

Baja eragin duten istripuen %78,33 industrian gertatu ziren (188, guztiak arinak). Zerbitzuak dira lan istripu gehien erregistratu den bigarren sektorea: %12,91. 32 istripu guztira eta haietatik bat larria. Eraikuntzan lan istripuen %5,41 gertatu ziren (13). Azkenik, abeltzaintzan %2,91 izan ziren. 2013an lehen sektorean zenbatu

ziren zazpi lan istripuetatik bi larriak izan ziren, 2013an Sakanan izan ziren istripu larrien bi heren.

Zergatiari dagokionez, aurreneko arrazoia, %35, gehiegizko ahalagin fisikoagatik, trauma psikiko edo erradiazio, zarata edo argi esposizioagatik izan zen (84). Bigarrena, %29,16 mugitzen ari zen objektu baten kontra kolpe edo istripuagatik izan zen. 70 istripuetatik 2 larriak izan ziren. Moztu, puntadun, gogor edo latza den zerbait ikutzeagatik %13,75 lan istripu izan ziren (33) pasa den urtean Sakanan. Istripuen beste %12,5 geldiz goen objektu baten kontra edo harekin zapaltzeagatik izan zen (30). Hala ere, istripuen %45,41 zauri eta lesio arinak eragin zituzten eta beste %35 dislokazioak, zaintiratuak eta bihurrituak izan ziren. Istripu horien %45,41 esku eta besoetan izan ziren (bi larri). Atzetik, beso eta oinak (%17,5) eta burua zeuden (%13,3).

Baja hartzea eragin duten lan istripuak	Arinak		Larriak		Guztira	
	2013	2012	2013	2012	2013	2012
Besteen konturako langileak	226	250	3	3	229	253
Autonomoak	11	11	0	1	11	12
Bidean	12	10	1	0	13	10
Berriz gaixotu	20	23	0	0	20	23
Guztira	269	294	4	4	273	298

Sektoreka	Arinak		Larriak		Guztira	
	2013	2012	2013	2012	2013	2012
Abeltzaintza	5	11	2	1	7	12
Industria	188	203	0	3	188	206
Eraikuntza	13	16	0	0	13	16
Zerbitzuak	31	31	1	0	32	31
Guztira	237	261	3	4	240	265

Lesio mota	Arinak		Larriak		Guztira	
	2013	2012	2013	2012	2013	2012
Azaleko zauri eta lesioak	109	127	0	1	109	128
Hezurra hautsi	28	27	1	2	29	29
Dislokatu, zaintiratuak, bihurrituak	84	81	0	0	84	81
Anputazio traumatikoak	1	1	2	1	3	2
Barne kommozio eta zauriak	8	17	0	0	8	17
Erredura, galdarraztatzea, izoztea	5	7	0	0	5	7
Lesio anitz	2	1	0	0	2	1
Guztira	237	261	3	4	240	265

Zauritutako gorputz atala	Arinak		Larriak		Guztira	
	2013	2012	2013	2012	2013	2012
Burua	32	26	0	2	32	28
Lepoa, bizkar hezurra, lepaornoak	2	3	0	0	2	3
Bizkarra, bizkar hezurra, ornoak	43	50	0	0	43	50
Soina eta organuak	9	6	0	0	9	6
Besoak, eskuak	107	109	2	1	109	110
Hankak, oinak	41	62	1	1	42	63
Gorputz osoa eta hainbat zati	3	5	0	0	3	5
Guztira	237	261	3	4	240	265

Lan istripuen zergatia	Arinak		Larriak		Guztira	
	2013	2012	2013	2012	2013	2012
Argindarra, sua, temperatura edo sustantzia arriskutsuak ukitzeagatik	6	8	0	0	6	8
Ito, lurperatua edo bilduta gelditu	0	1	0	0	0	1
Geldi dagoen zerbaiten gainean edo kontra zapatu	30	44	0	1	30	45
Mugitzen ari zen zerbaiten kontra jo	68	64	2	2	70	66
Moztu, puntadun, gogor edo latza den zerbait ukitu	33	38	0	1	33	39
Harrapatuta gelditu, zapalduta, anputazioa	16	28	1	0	17	28
Neurri gabeko ahalegin fisikoa, trauma psikikoa, Erradiazio, zarata edo argi esposizioa	84	77	0	0	84	77
Hozkatzea, ostikadak eta abar	0	1	0	0	0	1
Guztira	237	261	3	4	240	265

Nafarroan

Laneko baja ekarri zuten 6.672 lan-istripu gertatu ziren pasaden urtean Nafarroan, 2012an baino %0,5 gutxiago. Horietatik 5.979 lanaldian gertatu ziren eta 693 in itinere. 5.979 istripuetatik 5.592 arinak izan ziren, 60 larriak eta 9 istripuk heriotza eragin zuten. Bestalde, bajarik gabeko 13.251 istripu erregistratu ziren.

Industria ekipoen mantenu ikastaroa Altsasun

Nafarroako Gobernuak egin duen 15 ikastaroren eskaintzaren barruan dago Altsasukoa. Izena ematerakoan langabetuek lehentasuna izanen dute

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak (NEZ) antolatu dituen langabetuendako prestakuntza-ikastarotan izena emateko epea zabalik dago. 15 ikastaro eta 256 plaza dira. Haiei buruzko informazioa NEZen web orrian dago. Enplegu bulegoan edo aipatu web

orrian eman daiteke izena. Plaza horiek betetzen lehentasuna langabetuek izanen dute. Akaberran lanbide-gaitasuna ziurtatzen dieten profesionaltasun-ziurtagiriak jasoko dituzte.

Ikastaro horietako bat Altsasun dagoen Sakana Lanbide Heziketa institutuan eginen da: industria ekipoen mantenua eta muntai mekanikoa. 270 orduko ikastaroa da, heldu den astearte-

an hasi eta garagarriaren 12ra arte luzatuko dena. Klaseak 15:30etik 20:45era izanen dira. Interesa dutenek DBH edo BBBko 2. mailako ikasketak eginak izan beharko dituzte (bi gai gainditu gabe gehienez). Bestela LH I ikasketak eginak izan behar dira. Ikastaroan sartzeko beste bide bat sarrera proba edo gaitasun gakoaren probak gaindituak izatea izanen da, besteak beste.



Jendea Altsasuko plazan.



Nonerabili

ASENSIO

ALTSASU

100 €tik gorako erosketetan hurrengo erosketarako 10 €ko balea. (eskaintza ez metagarria).

IL PADRINO

ALTSASU

Eguneko menuan txupittoa doan.

EROSKI CITY

ALTSASU

Eskaintza kanpainaren arabera.

SARABE TXOKOA

ALTSASU

30 €tik gorako erosketetan etxeko produktua doan.

VALCARCE

OLAZTI

0'06 €ko deskontua litroko, erregai guzietan.

EDERNE ILEAPAINDEGIA

LAKUNTZA

15 €ko gastuarekin, bibotea depilatzea doan. 30 €ko gastuarekin bibote eta bekainak doan. Eta ileapaindegian makilaje ukitua doan.

XAGU

ALTSASU

%5eko deskontua, 30 €tik gorako erosketarekin gero.

LIBURUNDA

ALTSASU

%5eko deskontua papertegia eta irakurketarako liburuetan.

GOIKO LOREDENDA

ALTSASU

30 €tik gorako erosketetan %10eko deskontua (baratza eta garaiko loreetan izan ezik. Eskaintza ez metagarria).





Eduardo Galan

astekoa

Bakearen nobel saria

Geir Lundestad-ek, Nobel Institutoko Zuzendariak, (kontuz! ez konfunditu hau Espainako Noos Institutuarekin, Nobel Saria-k ematen dituen Instituto hau Suediarra da eta hemengo korrupzioetik urrun dago, egon beharko litzake behintzat), 2014. urteko Bakearen Nobel Sariako hautagaien zerrenda argitaratu du

azken egun hauetan. 231 pertsona eta 47 erakunde agertu dira irabazle posibleen artean.

Ez dakienarendako, Bakearen Nobel Saria Alfred Nobel-ek sorturiko bost Nobel Sarietako bat da. Urte horretan bakearen alde nazioen arteko elkartasunaren alde eta gerren aurka lan egin duen munduko pertsonaia

garrantzitsu bati ematen omen zaio eta, esandako zerrenda horretan, aurten gogoan hartutako izenen artean honako hauek daude: Frantzisko Aita Santua, Edward Snowden CIA-ko eskandalua piztu zueneko espioi ohia, Vladimir Putin eta José Mujika, Uruguaiako Presidenteaz aparte, Denis Mukwegeren izena ager-

tu da, kongotar ginekologoaren izen ezezaguna.

Azken honek, berak eraikitako ospitalean lan egiten du Bukavun; askotan, egunean 18 ordu aritzen da lanean. 1997. urteaz geroztik, Kongon dauden guden erruz, bortxatutako emakumeak artatzen ditu, «derrigorrezko espezialista». Ez dakit aurten, 2.009. urtean

bezala –Barack Obama izan zen sariaren garaile– irabazlearen hautatze prozesurako amarrurik egongo den ala ez, eta azkenean gure Vladimir garaile agertuko den, baina horrela izaten bada ere nire irabazlea Mukwege izango da. Zurea? **Kexak, iritzia, iradokizunak: dudu-galan@hotmail.com**

barrutik kanpora

Ekidin zitekeen heriotza

Arkaitz Bellon Blancoren heriotzak saminez bete gaitu. Otsailaren 5ean jaso genuen berri hau, urtea hasteko erarik anker eta gogorra izan da.

Mediku txostenek diotenaren arabera, bapateko heriotza naturala izan da. Azken momentuan, ia konturatu ere egin gabe, sufirimendu keinurik gabe hil dela onar genezake agian, baina ez bapateko heriotza izan denik, 13 urte luze hauetan erahil baitute

krudelkeria neurtu eta sistematizatu baten bitartez. Arkaitzen espetxealdia ezagututa, aldiz, ezin dugu onartu bere heriotza naturala denik.

Espetxe politika gogorraren ondorioz bizitako etengabeko sufrimendu eta tentsioak heriotza honen erantzule nagusiak izan dira. Atxilotu zuten momentuan torturak jasan zituen. Handik hiru urtera, epaiketaren fiskalak bere froga zuzenik ez zela

aitortu arren, kondenatu egin zuten, leporatzen zizkieten ekintzekin inongo proportziorik ez zuen kondena luze eta neurrigabeko batera.

Kartzela aldian, dispertsioaren politika gogorra jasan zuen, urtetik urtera etxetik gero eta urrunago egonaz. Gurasoak bera bisitatzea joan eta errepidetan istripu larri bat izan zuten eta horren ondorioak ere pairatu behar izan zituen. Gainera,

espetxean pasatako denboraren zati handi bat isolatuta egon zen kideen babesa eta laguntasunik gabe.

Guk badakigu horrek denak hil duela Arkaitz. Kartzela politika krudel eta hiltzaile baten ondorio zuzena izan da gertatu dena, ez edozeini gerta dakioken zerbaitea izan da.

Azkenik, senitarteko eta lagun guztiei besarkada sentituena

helarazi nahi genieke. Arkaitz gogoan zaitugu!



Sakanako Etxerat

hara zer dien

Osasun emozionala

Arreta jartzea eta bai ingurune-arekiko harremanetan baita gure barrenean gertatzen diren gauzetaz konturatzea garrantzitsua da gure bizitzan. Arretarik jartzen ez dugunean, ez dakigu zer sentitzen dugun, ez dakigu zer nahi dugun eta zer behar sentitzen dugun ere.

Gorputza entzunez eta gure sentazioei arreta jarriz, nola sentitzen garen konturatu gaitezke, eta ondorioz, gure beharrak zeintzuk diren jakin dezakegu, hauek asetzeko gure eskuetan dagoena eginez. Beharrak mota askotakoak izan daitezke, hala nola, atsedean hartzea, beste persona bati zerbaite adieraztea, bizimoduaz

aldatzea, besarkada bat eskatzea... askotan, nahiz eta konturatu, behar hauei ez diegu erantzunik ematen eta gure barrenean gelditzen dira bueltaka. Eta bestetan, ez dugu horietaz inolako kontzientziarik.

Osasun emozionalaren bidean, sentitzen dugunaren kontzientzia hartzea ezinbestekoa da; sentitzen dugunaz konturatu, hau onartu (nahiz eta gustokoa ez izan) eta pauso bat ematea beharrezkoa bada, horri ekin, nahiz eta askotan pauso hori emateak beldurra sortarazi.

Emozio, sentimendu eta izaera batzuk “onak” direla ikasten dugu eta beste batzuk “txarrak”.

Beraz, azken hauek baztertzen ikasten dugu eta gure nortasunetik kanpo uzten saiatzen gara: ez ditugu gustoko, beraz, horiek bestean aurrean moztzen, estaltzen... saiatzen gara, nortasunean “zuloak” sortaraziz. Gure buruaz onartzen ez duguna, gustoko ez duguna, kutxa itxi batean gordetzen saiatzen gara.

Osasun emozionala, pertsona-

ren benekotasunarekin erlazionaturik dago: benetan gu garenarekin zerikusia du. Gure buruaz gustoko duguna eta estaltzen duguna onartu eta horren arabera, arduraz jokatu, bai gu garenarekin, baita guk sentitzen dugunarekin ere.

Horretarako, arretaz bizitzea eta gertatzen zaigunaz kontziente izatea ezinbestekoa da, momentu batzuetan sortzen zaizkigun beldurrei eta egoera zailei aurre eginez.

Naroa Iraurgi Arrieta,
psikologoa (Gestalt terapeuta)

ZUZENKETA

Aurreko asteko 11 galderetan Altsasuko berdintasun agente Jaione Iraolari martxoaren 8aren inguruan antolatutakoaz galdetzerakoan, ostiraleko elkarretaratzea Altsasuko Feministak eta Altsasuko Bilgune Feministak antolatu zutela argitu nahi dugu.

gora/behera

Euskaltzaleak
Bihar euskaraz bizitzeko nahia aldarrikatuko dugu.

Lan istripuak
Arina edo larria izanda ere, bat bera gehiegi da.

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa
MAKETATZAILA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net
eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Erkuden Ruiz Barroso eta

Maialen Huarte Arano
ZUZENTZAILA: Maria Luisa Zelaia Mendia
ARGITARATZAILA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILA: Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hezkuntza Politikako Salburordetza

PRESO ETA IHESLARIEN ESKUBIDEEN ALDE: Arlo askotako 25 herritarrek, tartean Peio Reparazek, adierazpen bat sinatu dute, presoan giza eskubideak errespetatze-

ko eskatu dute. apirilaren 12an Herritar Topaketak antolatuko dituzte giza eskubideen alde, sare zabala osatzeko.

sakanerria >>

SAKANA

Bihar Iruñean euskaraz bizitzeko nahia ozen eta tinko aldarrikatuko da

Antoniutti parketik abiatuko da 17:30ean euskaltzaleek deitutako manifestazioa

Nafarroako euskalgintzako esparru ezberdinetako makina bat pertsonak egin dute biharko Iruñeko manifestaziorako deialdia, euskaraz bizitzeko aldeko manifestazioa. Euskaraz bizi nahi dugunok Nafarroako Gobernuaren aldetik jasaten ditugun oztopoak salatze-ko manifestazioa.

Nafarroako euskal komunitatean sentipen zabaldua da euskaraz aritzen garenok arrotz gisa tratatzen gaituela gobernuak, eta gure lurrian berean desagerrarazi nahi gaituela. Nafarroako Gobernuak hartzen dituen erabakietan, egiten dituen adierazpenetan eta bere hizkuntza politikan ikusten da hori.

Adibideak ugari dira: euskaraz-

ko irakaskuntza zabaltzearen kontra Euskararen Legeak ezartzen duen zonifikazio estua erabiltzea; D ereduak kakazteko ahaleginak (Guardia Zibilaren sasitxostena); elkarbizitzaren aitzakian D ereduko ikastetxeen funtzionamendua erdaldundu nahia; Nafarroan ETB sare digitalean ikusteko debekua eta isunak (haurrak euskarazko marrazki bizidunak gabe erdaraz biziartzeko); Euskal Herria Irratiari lizentziarik ez emateko trikimailu lotsagarriak; tokiko euskarazko hedabideak dirulaguntzarik gabe uztea, baita udalaren euskara zerbitzuak ere; euskal eremuk udalerrietan hainbat zerbitzu euskaraz jasotzea galaraztea (liburutegietan, osasun-etxeetan euskaraz ez dakiten langileak jarritz); epaitegietan euskara hutsean aritzerik ez izatea; herri batzue-

tako udalek hartutako hizkuntza irizpide egokiei jarritako helegiteak edo herri ekimeneko euskaltegiak itotzea dirulaguntzarik gabe uztea.

Deia

Nafarroako Gobernuak Euskararen Lege eskasak ezartzen duena hainbat arlotan ez du betetzen. Gainera, atal asko murriztu ditu edo modurik kaltegarrienean garatu ditu. Horregatik, bihar Nafarroako euskaltzaleak foru administrazioaren hizkuntza politika salatu-ko dute Iruñean. Horrekin batera, euskaraz bizitzeko nahia bermatuko duen hizkuntzaren aldeko benetako hizkuntza politika eraginkor baten beharra aldarrikatuko dute.

Biharko manifestazioaren deitzaileek dei egin diote Nafarroa-

ko euskal komunitate osoari “dinamika sozial indartsua abian jartzeko eta euskaraz bizitzeko behar diren pausoak emateko”. Ziurtatu dutenez, “pertsonak gara aldaketaren gakoa: bizitzaren arlo guztietan euskara erabiliz, espazioak euskaldunak, euskara ikasiz, euskaldun bezala harrotasunez agertuz”.

Atxikimenduak

Deialdia egiterakoan 80 bat lagunek zerranda ezagutza eman zuten. Dagoeneko 1.000 lagunek bat egin dute mobilizazioarekin eta oraindik ere horretarako aukera dago. Horretarako euskaldunok m22@gmail.com helbidera jo.



>> Altsasu

Udalarekin harremanak euskaraz izateko eskaerak jasoko dituzte

Gaur, 18:00etatik aurrera Gure Etxea eraikinean. Bestela, bertan edo gaztetxean utzi daitezke eskaera orriak

Udalak eta biok euskaraz kanpainaren barruan Altsasuko Euskal Herrian Euskaraz-eko (EHE) kideak udalaren aurkeztu beharreko eskaera orriak altsasuarren esku jarriko dituzte. Haien bidez etxean eta kalean zein udal etxean altsasuarrek jasoko dituzten paper, ohar, bando, inprimaki, publizitate euskarri, lanpostu deialdi eta bestelako guztiak euskaraz izatea eskatu diote udalari. Baita 012 telefonoko informazioa euskaraz izatea ere. Euskarazko hartu-emaneekin erlazioan utziak beste eskaeraren bat gehitzeko aukera izan du norberak.

>> Lakuntza

Udalarekin euskaraz aritu nahi dute

Harreman hori euskaraz izatea nahi dutenek eskaera orriak udal etxean edo liburutegian jaso dezakete apirilaren 16ra arte

Ostiralean 15 bat lakuntzar udal etxetara elkartzeko Euskararen Legearen aldeko (EHE) gontzia onartuz. Guztiek ere udalarekin harremanak euskaraz nahi dutela zioen idatzia sinatu zuten eta udal etxean aurkeztu zuten. Lakuntzako EHEtik jakinarazi digutenez, sinatzaileek “etxean, kalean zein udal etxean herritarrok jasoko ditugun paper, ohar, bando, inprimaki, publizitate euskarri, lanpostu deialdi eta abar guztiak euskaraz izatea besteak beste” euskaraz jaso nahi dituzte.

Lakuntzarren eskaera hori EHEk martxan jarri duen Udalak eta biok euskaraz dinamikaren baitan kokatzen da. Udala da herrita-



Udala eta biok euskaraz ekimeneko sinatzaileak. UTZITAKOIA

rrongandik hurbilen dagoen administrazioa dela eta hizkuntza politika egiteko konpetentziak dituela kontuan izanik, “udalari euskaraz

bizitzeko dugun nahia errespetatu eta honekiko harremanak euskaraz izateko dugun eskubidea bermatzeko eskaria bideratu diogu”.

Gainontzeko lakuntzarrei dei egin diote eskaera orriak sinatu eta udalari euskarazko harremanak bermatzeko eskaera egiteko.

PPSOE,
ETB digitala
Nafarroan orain!
Berria erosi taldea

Kaixo
Kafetegia-Jaletxea

JAIETXEA - RESTAURANTE - KAIKO - BAR-CAFETERIA

GARCIA XIMENEZ 20-22
948.46.91.24 ALTSASU
www.restaurantekaixo.com

GANUZA SUKALDEAK
Sukalderako altzariak

Bainu gelako altzariak
Horma armairuak
Etxetresna elektrikoak

Tel: 948 460 203 Fax: 948 460 673
c.ganuzacocinasganuzac.com
www.cocinasganuzac.com
Etxarriko industrialdea
ETXARRI ARANATZ

maríaeugenia Arrainak
www.pescaderiamariaeugenia.com
Arratsalde zabalik

Lortu deskontuak gure txartelarekin!

Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722
El Ferial, 1 • 948 467 950 / Isidoro Melero • 948 467 725

Sakanarako bide-orria

Ibarreko biztanleen ekarpenak eskatu dituzte Sakana 2020 Plan Estrategikoa osatzeko

Laulan-taldetan banatuta, sei hilabetez esperientzia eta ezagutza zabaleko 51 pertsona eta 8 dinamizatzaile Sakana 2020 Plan Estrategikoa (SPE) lantzen aritu dira. Ibarreko aditu eta arituez talde horrek osatutako diagnostik abiatura gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren iraunkortasunean oinarrituriko lanpostuak sortzea erraztuko duten etorkizunerako apustu eta ekimen zehatzak proposatu dituzte. SPEk lau esparru estrategikotan 13 ardatz, 54 lanildo eta 147 ekintza jasotzen ditu.

Etorkizuneko Sakana eraikitze-

ko ibarreko biztanle guztien parte hartzea eskatzen duela iritzita, SPE dokumentua www.sakanagartzten.com web orrian ikusgai dago. Atari berean prozesu parte-hartzailean zehar lan-talde bakoitzean egin diren diagnostiko osoak eta AMIA taulak kontsulta daitezke. Hiru herri handienetan ere planaren aurkezpen bana eginen da.

Hura aberasteko sakandarrei ekarpenak egitea eskatu dute. Apirilaren 3ra arteko epea izanen da horretarako. garapena@sakanamank.com helbidera bidali behar dira ekarpenak. Haiek lan batzordeak aztertu eta Sakanako Sozio-ekonomia Behatokiak apirilaren 12rako azken oniritzia emanen dio planari. Udaletan mozioak aurkeztuko dira SPEri oniritzia emateko.

Plan estrategikoa Sakanak pairatzen duen langabezia tasa altuari eta krisiari aurre egiteko bitarteko bat izan nahi du. Sakanako Mankomunitateak eskatutako eskualde mailako hausnarketa prozesuaren ondorioa da. Cederna-Garalur, Sakanako Garapen Agentzia eta Sakantzen Sareak sustatutako Sakanako Sozio-ekonomia Behatokiaren bidez egin du aurre-



Sakana 2020 Plan Estrategikoa egiten arituak eta adituak egon dira.

ra planak, bidean ibarreko eragileekin arteko elkarlana aktibatuz.

Planaren kudeaketa

SPE aurrera eramateko euskarri instituzionala, parte hartze zabala, adostasuna, eraginkortasuna eta birmoldatze aldiroko hausnarketa bilatzea aurreikusi dira. Maila instituzionalean udalak, Mank, Nafarroako Gobernua, Ministerioak eta Europako Batasuna daude.

Maila operatiboa, planaren implementazioaren erdigunea, Sakanako Garapen Agentzia eta Cederna-Garalur izanen dira, bestelako eragileekin laguntzaz. Ebaluatzeko batzorde bat osatuko da: Sakanako Garapen Agentzia, Garalur, AES, NEZ, LH, Sakantzen, lantalde bakoitzeko bina ordezkari eta udaletako eta Mank-ekoak. Hausnarketa instituzio eta Sakanako Sozio-ekonomia Behatokiaren eginen da.

Plan estrategikoaren aurkezpenak

Altsasun, martxoaren 24an, astelehenean, 19:00etan Iortia kultur gunean.

Irurtzunen, martxoaren 25ean, asteartean, 19:00etan udaletxean.

Etxarri Aranatz, martxoaren 26an, asteazkenean, 19:00etan, kultur etxean.

Lau esparru estrategikoak

Elikadura: lehensektorea eta elikagaien industria

Industria: industria eta enpresa-zerbitzuak.

Energia: basogintza, energia berriztagarriak eta erakuntza.

Turismoa: turismoaren sektorea.



INDUSTRIA

Azken hamarkadetan, industria sektoreak izugarriko eraldaketa jasan du. Horren erakusle dira, esate baterako, ondasun merkatuen nazioartekotze handiagoa; diferentziazioan, kalitatean eta ondasunaren bizitza zikloaren laburtzean oinarrituriko lehiaren areagotzea; teknologian, antolaketan eta komertzializazioan berrikuntza sistemiko eta iraunkorra; produkzio eta lanaren antolaketaren paradigma berriak; eskala geografikoen birformulazioa, non erregioak, garapenerako subjektu bezala, garrantzitsuagoak bilakatzen diren. 2008-2013 urte bitartean Sakanak 2.075 soldatapeko enplegu galdu zituen. Enplegu horien %69ren suntsiketa industriari dagokio. Industrian suntsitutako enpleguaren %82,86a, 2008an 50 soldatapekotik gora zituzten 19 enpresetan elkar-tzen da. Mikroenpresak eta enpresa txikiak ibilera hobeto erakutsi dute. Izan ere, 8 enpresen itxierak 1.153 enpleguen desagertzea sortu dute, hau da, enpresa handi eta ertainen artean %72-ko enplegu suntsiketa. Bestemoduta batera esanda, Sakanako langabeziaren gorakadaren gakoak 8 enpresa hauen itxieran errotzen da.

ARDATZAK

Industria lan-taldeak aurrera egiteko lau ardatz, 12 jardueraren zehaztu ditu, eta haiek aurrea eramateko 50 ekintza ere. Industriako aurreneko ardatza



Lakuntzako industrialdearen ikuspegia.

enpresen kokapen estrategikoa hobetzea da. Planean jasotako lau jardueraren lehen ardatza: enpresen bidea erraztea beren kokapena hobetzeko tresnak eskura izan dituzten; berrikuntza bultzatzea; giza baliabideen kudeaketa hobetzea eta kooperazioa bultzatzea eta enpresen arteko artikulazioa hobetzea. Jarduerak garatzeko 24 ekintza jasotako daude planean.

Industriako bigarren ardatz estrategikoa enpresa berriak sortzeko ekimenak bultzatzea da. Bi lan lerro jaso dira planean: enpresak sortzeko ekimena bultzatzea eta kudeaketa proaktiboa, inbertsioak erakartzeko. Dozena bat ekintzen bidez garatu nahi da asmoa. Azpiegiturak hobetzea da industria-

rako aurreikusitako hirugarren ardatza. Horretarako hiru jardueraren zehaztu dira: industria lurzoruaren eskaintza hobetzea; informatika saretarako sarbidea hobetzea eta hezkuntza alorreko hobekuntzak. Hiru lerro horiek 7 ekintzen bidez garatu nahi dira.

Hiru jardueraren lehen eta 7 ekintza zehaztu dira industriako laugarren ardatzean: eskualdearen irudi positiboa eta erakargarria eraikitzea. Horretarako aurreikusi da, batetik, eskualdea eta lehiatzeko bertan dauden abantailak sustatzea. Aldi berean, eskualdeko dinamika bultzatzea eta indartzea egoki jo da. Ekintza horiek beste eskualde eta garapen agentzia batzuekin harremanak bultzatuz osatuko dira.



TURISMOA

Sektore turistikoak eta aisialdi eskaintza garapen iraunkor batean murgilduta daude eta eskaera turistikoak sakoneko eraldaketa jasan du. Oporretako ohituren eta lehentasunen joera berriak antzeman direlako. Europako joeren arabera kalitatezko eskaintza turistiko jasagarri baten aldeko apustua egin beharra dago. Batez ere, ingurune aniztasuna eta kultur aberastasuna azpimarratuz. (Jasangarritasuna kontuan hartuta, tokiko kultura eta ohiturak sustatzen dituen eskaintza eta ingurumen ondarea eta kulturala mantenduko duen eskaintza turistiko bultzatu beharra dago).

Sakana igarobide puntua da eta ondorioz, ezaugarri historiko eta kultural anitzak dauzka. Zentzu horretan, Europatik iradokitzen zaigunari jarraiki, "Europako ibilbide kulturalak" omen dira eskaintza turistiko kultural anitza sustatzeko abiapuntua. Ibilbide kultural hauek ezagutzeke dagoen indargune turistikoak daukate. Eredu jasagarri, etiko eta sozialak ere badira. Jakiturian, ondarean eta tokiko erabilpenean oinarrituta daudelako eta aldi berean hain ezagunak ez diren tokiak sustatzen dituztelako.

Turismoa, Sakanako tokiko garapenerako tresna izateaz aparte, ibarreko kultur dinamizazioa ere ahalbidertatuko du. Ez masifikatu eta errespetuan eta gure ondare kultural eta naturalen balioan oinarritutako turis-



moaren alde egin da. Ibarrean aberastasuna sortuko duen turismoa.

ARDATZAK

Turismoa garatzeko hiru ardatz eta 13 jardueraren lehen ardatza Sakanako helmugaren kudeaketa da. Haren kudeaketarako oinarrien sorrera helburu duen jardueraren lehen ardatza da bost ekintzen bidez.

Sakana helmugaren dinamizazioa da turismo arloko bigarren ardatza. Sei jardueraren lehen bidez egingen da: azpiegitura turistikoaren sorkuntza eta balioztatzea; dinamizazio kulturala; turismo produktua; turismo paketeen dinamizazioa; egonaldia gomendioak eta mikologia turismoa. Horretarako dozena bat ekintza aurreikusi dira.

Turismoko azken ardatz estrategikoa salmenta eta promozioa da, sei jardueraren lehen eta 14 ekintzeekin osatuta. Jarduerak hauek zehaztu dira: oinarriak; irudi korporatiboa; on-line promozioa; off-line promozioa; bestelako promozio ekintzak eta eskualde irudiaren kudeaketa.

Sakanako Plan Estrategikoa

ELIKADURA SEKTOREA

Azken hamarkadetan kontsumo portaratan eta kontsumo ohituretan aldaketak ematen ari dira. Fase berri batera pausua eman da, non landa, elikagai eta lehengai ekoizle hutsa izatetik, kalitatera eta naturara lotutako produktuen ekoizletzera pasa den. Indarra hartu duten baloreak izan dira: kalitatea, naturarekiko lotura, ekologia... Gertakari horrek, aldi berean, gizartea nekazaritza landara hurbiltzea ekarri du, kontsumo eta aisialdi ohitura berriek krisian dagoen sektoreari berreskuratze aukera bat emanez.

Aldi berean, landa eremuen despopulazte arazoari eta lur sailen uzteari aurre egiteko aukera ematen du. Joera honek, lehen sektorean edo elikaduraren sektorean aktibitatea sortzea edo hedatzea ahalbidetzen du, gainera bertako produktuei balio erantsia emanez eta eskualdean aberastasuna sortuz.

Tokian tokiko ekoizpen sistemenera bilerak, non errekurtsio propioei balio erantsia ematen zaien, lehiakortasunean abantaila bat ematen du eta gainera produktua eskualdean lotuta geratzen da. Horrela, produktuak dibertsifikatzeko ahalmena eta aukerak sortzen dira, produktuei balio erantsi handiagoa emanez, lurraldeari aberastasun handiagoa ekarri eta kontsumo portara berriei egokitutako aktibitate



Behiak behitegian agotza jaten.

te ekonomiko berriak edo daudenak handitzeko aukera emanez. Plan Estrategikoaren prozesuan zehar, Sakana baliabide naturalez eta merkatuan ondo kokatutako produktuez osatutako ibarra dela azpimarratu da, produktuen kalitateari dagokionez. Gainera, produktu elaboratuen irudi ona eta kontsumo eremuen hurbiltasuna gehituz, tokian tokiko produktioan apustu egin daitekeela ondorioztatzen da, horrek aktibitate ekonomiko berriak sor ditzakeelako edo dau-

denak handitu.

ARDATZAK

Lehen sektorerako SPEk 4 lan ardatz, 16 jardueraren eta 45 ekintza deskribatu ditu, bakoitzari dagozkion arte-hartzaileak zehaztuz. Lehen ardatza, ekonomia, gizarte eta ingurumenari dagokienez, abeltzariak sustatze eredu iraunkor baterantz zuzentzea da. Horretarako aurreikusitako jardueraren artean daude: abeltzainen arteko topaguneak bultzatzea; produktuaren

lurrak optimizatzea eta balioztatzea eta, azkenik, eraldatzea eta salmentara xede dituzten azpiegiturak optimizatzea eta balioztatzea. Jardueraren horiek aurrera eramateko 8 ekintza zehaztu dira.

Sei lan lerro eta 18 ekintza ditu lehen sektoreko 3. ardatzak, tokiko elikadura sistemak bultzatzeaz ari dena. Adostutako jardueraren artean dago kontsumitzaileen kontzientzia eta prestakuntza handitzea, tokiko produktua, kalitatekoak, ekologikoak... kontsumitzaiek dakartzan onurengainean (gizartean sektorearen irudia hobetzea). Horrekin batera, Sakanan egindako produktuak sustapena egitea aurreikusten da.

Ekoizle txikiei merkaturatzean eta marketinean laguntzea ere jasoa dago SPEn. Baita ekoizlearen arteko topaguneak bultzatzea ere. Aldi berean, merkataritza jardueraren turismo jarduerari lotzea adostu da lan-taldea eta, azken jardueraren artean nekazaritza ekologikoa bultzatzea ematea da.

Elikadura arloko lagarren eta azken ardatza sektorearen prestakuntza garatzea edo berriazko prestakuntza jarduerak antolatzeari buruzkoa da. Hiru lan lerro zehaztu dira: prestakuntza alorreko entitateekin lankidetzara etengabea; ekintzaile berriendako berriazko prestakuntza eta, azkenik, prestakuntza jarduerak edo etengabeko prestakuntza planak garatzea. Guztira zortzi ekintza garatzeko asmoa dago.



ENERGIA

Energiari buruzko politikak haren zentzuzko erabilera sustatzera bideratu behar dira, baita efizientzia energetikoa bultzatu eta energia berriztagarriak sustatzera ere. Proposamen horiek, gako estrategiko moduan hartuz gero, bertako ekonomia errendako eta ingurumen errendako onuragarriak izan daitezke, faktura energetikoa murrizten delako eta horrekin, gizartearen intentsitate energetikoa ere jaisten delako. Bestalde, erregai fosilek sortzen duten kutsadura emisioa gutxituko litzateke.

Horrela, arlo energetikoan garatu beharreko tokiko estrategia, energiaren aurrezpena, efizientzia energetikoa eta energia berriztagarriak gailentzera bideratuko litzateke. Batik bat, ingurumenarekiko onuragarriak izango zitezkeelako eta horrela antolatuz gero tokiko ekonomian sortuko luken eragin positiboa izugarria izanen litzatekeelako.

Errealitate horren aurrean, sektore energetikoa enplegu berriak sortzeko eta enpresa jardueraren berriak sortzeko sektore bideragarria da. Gainera beste hainbat sektoretan eraldaketa sortuz, hala nola, industria eta eraikuntza batik bat, energia berriztagarriak sortzera eta efizientzia energetikoarekin harremana eduki lezaketan aktibitateak sortzera bideratu litzateke.

Sakanan gero eta pertsona, ekintzaile eta enpresa gehiago dira sektore honetan lanean hasi edota beraien



Eguzki plakak Irurtzungo etxe-bloke baten teilatuan.

enpresak, energiaren sektorerantz eraldaketa bat jasan dutenak. Europako energia arloan 20-20-20 helburuak zehaztu ditu 2020 rako: energia berriztagarrien %20 kuota, energia azken kontsumo gordinean; %20 kontsumo murrizketa oinarritzko energian eta %20 murrizketa berotegi-efektuko gasen isurketan.

ARDATZAK

Energia arloa Sakanan garatzeko bi lan ardatz zehaztu dira. Horiak garatzeko hiru jardueraren eta 15 ekintza aurreikusi dira.

Aurreneko ardatza industria enpresen kokapen estrategikoa hobetzea da. Energia ardatz hori indus-

triako aurreneko ardatzarekin batera partekatuta garatuko da.

Energia arloa Sakanan garatzeko bigarren ardatz estrategikoa proiektu berde eta proiektu enpresarial energetikoen sustapena eta sorkuntza da. Hiru jardueraren aurreikusitako dira. Lehenik, ekintzailetasuna sustatzea. Bigarrenik, proiektu berde eta enpresa proiektu energetikoen sustapena eta sorkuntza. Eta, hirugarrenik, inbertsioak erakartzeko kudeaketa pro-aktibo egitea. 15 ekintza aurreikusi dira. Ardatz honetako zenbait jardueraren industria eta enpresendako zerbitzuen sektorearekin batera garatuko dira.

Ondarria industrialdea
ALTSASU

Unamuno

Tel. 948 562 829 Faxe 948 563 002

EREITEKO PATATA

SASI-GARBITZEKO MAKINA

FRUTA-ARBOLEN GARAIA BADATOR

BEROGAILUENDAKO BIOERREGAIA

BEHIAK ETA ARDIAK JEZTEKO TRESNERIA

ABERE INSTALAZIOAK

>> Egiarreta

Elkartearen urteurrenak elkartuta

Santialde elkartearen XI. urteurrena ospatzeko afaria eta gaupasa egingen dute bihar

Egiarretan izanen da bakarren bat bihar duela 13 urteko kontuez hizketan hasiko dena; gogora ekarriko duena azkar asko erabaki zutela eskola zaharra konpontzea han elkartea egiteko. Bi hilabete-tan lortutako adostasuna gauzatzeari bi urte inguruko lanak ekarri zituela aipatuko du. Eta merezi izan zuela, elkartearekin egitarretan non bildu, non afaldu, non kartetan jolastu, non... badutelako.

Aurretik beste egoitza zahar batean zuten biltokia egitarretan. Baina haren jabetza zeinena zen, elizarena edo herriarena, ez zegoen argi eta, horregatik, erabaki zuten eskola zaharrak konpontzea. Santialde elkarteak bi solairu ditu eta Arakil ibarreko ikuspegi ederra eskaintzen du. Gaietan kontzeju-etxe dago. Ohi-



Santialde elkartearen kartetan jolasten. ARTXIBOA

ko afari eta festez aparte, aldian behin hitzaldiren bat, erakusketaren bat edo irteeraren bat antolatzen da elkartetik. Bazkide betanoek Arakilgo abesbatza kantatzen duten bitartean gazteak Rajatabla futbol taldean aritzen dira.

Gaur egun 55 bazkide ditu Santialde elkarteak. Genero ikuspe-

gitik bazkide kopurua orekatua da eta herrian bizi ez direnak ere bazkideen artean daude. Bihar elkartearen XI. urteurrena ospatzeko 50 bat afaltzera elkartuko dira. Sagardotegi menua izanen dute eta ondoren Arruazuko Ander akordeoilariaren doinuez lagunduta gaupasa egingen dute Santialden elkartutakoek.

>> Irurtzun

Ingurumena ikuspegi askotatik

Gaur abiatuko da ingurumenari buruzko egitaraua

Irurtzongo Udaleko Hirigintza eta Ingurumen Batzordeak antolatuta sortu da gaur abiaraziko den egitaraua. Haren baitan argindar kontsumorako alterna-

tibak, ingurumenean eragina izanen duten egitasmoen inguruko saioak, argindar linearen kontrako eguna, kontsumo arduratsua eta beste izanen dira, tailer, hitzaldi eta bisiten bidez egingen direnak.



Biaizpeko ikuspegia.

Hondakinen errusketa / balorizazioa. Martxoaren 28an, ostiralean, 19:00etan kultur etxean. **Hizlariak:** Portland, 3MB plataforma eta Olaztiko Udala.

Autopista elektrikoaren kontrako eguna. Martxoaren 30ean, igandean, 9:00etatik aurrera mendi maritza, Lurkideen argazkia eta herri bazkaria. **Autopista Elektrikorik Ez plataforma.**

Clarity, bisita gidatua. Apirilaren 2an, asteazkenean, 19:00etan udaletxean.

Kontsumo arduratsua. Apirilaren 4an, ostiralean, 19:00etan udaletxean. **Jose Luis Mariñelarena, Setem.**

Arbizuko hondakindegira eta Lakuntzako konpostagailuari bisita. Apirilaren 5ean, larunbatean, 10:30ean Foru plazatik abiatuta.

Ingurumena enpresetan (autogintza eta Inasa). Apirilaren 11n, ostiralean, 19:00etan kultur etxean. **VWko teknikariak.**

MOTZEAN

Dagoenari eutsiko dio kontzejuak

Aurten 53.648,5 euroko aurrekontua izanen du Izurdiagako Kontzejuak. Jose Luis Garcia Urbistondo kontzeju-buruak jakinarazi digunez, ez da aurten inbertsiorik egingen. Pasa den urtean, Arakilgo Udalaren laguntzaz, kontzeju-etxe teilatua konpondu zuten. Baina lan horren ondoren, ezer gutxi gelditzen da kontzejuaren diru poltsan. Bestalde, kontzeju-buruak jakinarazi digu aurten herriak ez duela urtero hartzen dituen bi kirol probak hartuko: ez mendi bizikleta lasterketa ezta futbol txapelketa ere

Ulyarrek aitaren hilketa liburuan jaso du

Ostiralean aurkeztu zuen Salvador Ulyar Mundiñan *Morir para contarlo* (Sahats, 2014) liburua. Bere aita Jesus Ulyar Liziagaren hilketaren lekuko izan zen 13 urterekin eta argitalpenarekin "gertatutakoaren akta" jaso nahi izan du Ulyarrek, baita familiak bizi izandakoa ere. "Hau egin zioten nire aitari eta nire herriari. Oinazea adierazi beharra nuen" esan du idazleak Diario de Navarra. Elkarrizketa berean adierazi duenez, hamar urte behar izan ditu liburua idazteko; "guztia atera beharra nuen", baina idazketa prozesua oso mingarria izan zela gaineratu du.



Iheslariet babesa

Iheslariek ibilitako makina bat iheslarik larunbatean agerraldia egin zuten Altsasun. Konponbide prozesuarekin "konpromiso osoa" adieraztearekin batera "azken iheslaria etxean izan arte babesa eta laguntza" emateko asmoa adierazi zuten. Iheslarien kolektiboak garagarriaren 15ean Miarritzen egindako adierazpenaren garrantzia nabarmendu zuten. Aldi berean, azken 50 urteetan gertatutakoa (gerra zikina, jazarraldiak, deportazioa, babesgabetasun juridikoa, tortura, gutxieneko bizi-baldintzarik eza) kontatzea beharrezkotzat jo dute.

Iortia kultur gune kanpoko aldean Covite biktimen elkarte kide Consuelo Ordoñez, Laura Martina eta Concepcion Fernandez izan ziren. Iheslarien aldeko ekitaldiko antolatzaileei argitu gabeko ETaren hilketen zerrenda eman zieten. Coviteren arabera 400 hilketa daude argitu gabe. Ordoñezek iritzi artxibatutako auziak "inori ez zaizkio interesatzen. Justiziarik ez badago, duintasunik ez dago". Larunbat goizean Guardia Civilaren presentzia handia izan zen Altsasu. Hainbat tokitan patruilak geldi egon ziren eta herri inguruan ere kontrolak izan ziren.

Txikiei arauak nola jarri?

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak 3 saioko tailerra antolatu du Uharteko Arakilen

Irurtzun zonaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak gurasoendako ondo-ko tailerra antolatu du: autonomia, arauak eta limiteak. Etxeko txikiei arauak eta mugak nola jarri eta txikien autonomia nola landu azalduko du Belen Perez de Pradok. Tailerrak 3 saio izango ditu: martxoaren 24an, martxoaren 31n eta apirilaren 7an, 15:00etan, Uharteko Arakilgo Udalean.

Eguneko bi kontrol

Altsasuko Ospa mugimenduak pasa den urteko balantzea egin du eta jakinarazi duenez, 600 kontrol ingururen berri izan zuen mugimenduak. Herriko kaleetan eguneko bi kontrol izan genituen batz beste". Horiak Foruzaingoak, Guardia Zibila eta Policia Nacionalak jarri zituztela azaldu dute Ospatik. Alde egiteko eskatu diete. Errepresioaren kontrako mugimenduak 2013 urteko bere errepasoan gogora ekarri du bi altsasuar "bortizki" atxilotu zituztela, bata, Donostiako herri harresian eta, bestea, Ospa egunean. Horretaz aparte, hainbat koadrila eta herritarren jarraipen etengabeak, mehatxu eta kikiltze saiakeren berri jaso du Ospark. Mugimenduak jakinarazi duenez, "isun politiko-en" atala oraindik itxi gabe duela. Orain arte 23.500 euroko balioa duten isunen berri dutela jakinarazi dute "eta oraindik pasa den urteko isunen berriak iristen doaz". Gaiaz hitz egiteko gaur, 18:00etan, batzarra deitu du Iortian.

Argindar garestitzearen kontra

Mezu hori eraman dute Sasoi, Nafarroako jubilatuen elkarte kideek Irurtzongo, Altsasuko eta Etxarri Aranazko azoketara. Azkena pasa den astelehenean Etxarri Aranazten izan zen. 32 jubilatuk argindar fakturaren igorera haien eros ahalmenean eragin zuzena zuela salatu zuten. Azokako kontzentrazioaren ondoren, kultur etxean Xabier Aiestaranek argindar enpresen eta sistemari buruzko argibideak eman zizkien.

Kamioi lapurrak atxilotuak

Berriki Guardia Civilak Kantabriako bi gizon eta beste bilbotar bat atxilotu ditu. Kargatuta zeuden kamioien lapurretan aritzea egotzen die. Lapurte zituzten kamioien artean Altsasuko udal kamioi apartamentuak pasa den urteko martxoan lapurtutako bat legoke. 17 tona altzairu zituela eraman zuten kamioia. Materiala saldu eta kamioia Los Arcosen agertu zen gerora. Bitartean lapurtutako kamioiaren jabeak, beste kamioi bat eskuratu behar izan zuen bere lanarekin segitu ahal izateko.

SAKANA

Kooperatiba, beste aukera bat

Cederna-Garalurrek ostegunean, 17:00etan, Altsasuko Gure Etxean Nafarroako Mendialdean sortu diren hainbat kooperatiben inguruko esperientzien berri emanen du.

Lanpostu bat izatea. Hori izaten da guztion helburua. Eta zergatik ez guk gure enpresa sortu? Hori beste aukera bat ere bada. Enpresa hori bakarrik sortu ahal dugu, edo senitartekoekin edo beste akzionista batzuekin. Baina zergatik ez kooperatiba bat sortu?

Zer da kooperatiba bat? Zein ezaugarri, abantaila ditu? Galdera horiek guztiak erantzun dituzte Cederna Garalur elkarte-koek ostegunean, martxoaren 27an, 17:00etan Altsasuko Gure Etxean "Taldea-ekintzailatza: koo-

peratibaren inguruko esperientziak Nafarroako Mendialdean" lelopean antolatutako jardunaldian.

Altsasuko bi kooperatiba: Gertu Sakana S. Koop eta Curvados Alzania S. Koop

ANEL (Asociación Navarra de Empresas Laborales) elkarteak kooperatiben ezaugarriak azalduko ditu, ekintzaileendako bide oso interesgarria direla nabarmenduz, eta ondoren Nafarroako Mendialdean berriki sortutako hiru kooperatibek euren esperientziaren berri emango dute. Tartean daude Altsasuko Gertu Sakana S. Koop eta Altsasuko Curvados Alzania S. Koop.

Egitaraua

17:00etan Jardunaldien aurkezpena. Isabel Elizalde, Cederna-Garalur Elkarte gerentea eta Garazi Urrestarazu, Altsasuko alkatea eta Cederna Garalur Elkarte ordezkarria. **17:15ean** Lan kooperatibak eta sozietateak. Abantailak eta konpromisoak. Maite Berasain, ANEL (Asociación Navarra de Empresas Laborales) elkarte ordezkarria. **17:45ean** Ekintzaileen kooperatiba maritza. Elena Zabala, ANEL elkarte ordezkarria. **18:00etan** Kooperatiben inguruko esperientziak Nafarroako Mendialdean: Gertu Sakana S. Koop (Altsasu) kooperatibako Andres Bengoetxea eta Ederne Goikoetxea, Curvados Alzania S. Koop (Altsasu) kooperatibako Jose Javier Fresneda eta Raul Mendoza eta Ernaizu S. Koop (Basaburua) kooperatibako Laura Martina. **18:40an** Galde-erantzunak eta bukaera.

Apirilaren 13ko herri galdeketaarako dena prest

Ospakizun eguna izatea nahi duenez, herri ekimenak egitarau zabala antolatu du egunerako

Nahi duzu Euskal Herri independente bateko herritarra izan? Galdera erantzuteko aukera izanen da

Dena prest dugu apirilaren 13ko herri galdeketaarako. Halaxe adierazi du Manu Gomez Genuak A13 ekimenaren izenean. Jakinarazpenarekin batera etxarriarrak parte hartzea deitu ditu. A13 herri ekimeneko kideak azaldu dute egun hori "iritzi guztien topaleku" izanen dela, joera ideologiko guztietako kideek baiezkoarekin, ezezkoarekin edo boto txuriarekin aukera izanen dutelako euren iritzia emateko.

Apirilaren 13an botoa ematera joateko zergati asko daudela nabarmendu dute. Esaterako, inor ez dela inor baino gehiago izanen. Herri galdeketa "demokrazian sakontzeko" aukera gisa planteatu dute, pertsonen botoa ematerakoan "herritarroi boterea ematen digulako". Iritzia jakitea, errespetatzea eta ondoren egikarizatzea erabakitzeak eskubidearen ariketa praktikoa dela ere gaineratu dute.

Galdeketa egunean irabazle bakarra herria izanen dela ziurtatu dute, "elkarren ezagutzan sakondu dugulako. Etxarri herri anitza, tolerantzia, heldua, lasaia baina aktiboa izateaz harro gaudela erakutsiko dugu". Gainera,

galdeketa herritarrei dagozkien gaiak euren esku uzteko balio duela iritzi diote ekimenearan.

Araudia

Deitu dituzten batzar eta bileretan zehaztu dute galdeketa araudia. Apirilaren 13an 16 urte dituzten etxarriarrak guztiek parte hartu ahaliko dute herri galdeketa. Horretarako kale Nagusiko 14. zenbakian egonen den hautes-lokaletik pasa beharko dute, 9:00etatik 20:00etara. Iritzia ematerakoan nortasun agiria, pasaporte edo EHNA onartutako dituzte. Dokumentua irauts badago edo ta gaur egun jabea Etxarri bizi dela adierazten ez badu, errolda agiria eraman beharko du.

Europar Batasunetik kanpo sortu direnak Bizileku-Txartelarekin asko izanen dute herri galdeketa parte hartzeko. Europar Batasuneko herrialderen batean sortu direnak, aldiz, koomunitateko erregistroko inskripzio egiaztagiria eta pasaporte edo nortasun agiria erakutsi beharko dituzte.

Galdeketa ikuskariak

Araceli Markotegi. Etxarriarra. Abokatu laboralista jubilatua. Ikuskarren koordinatzailea.

Maider Gofi. Etxarriarra. Aurreko legealdiko alkatea.

Mario Zubiaga. EHUko politika irakaslea eta Euskal Nazionalismo-ari buruzko masterraren burua.

Josep Manel Ximenes. Katalu-



Herri ekimeneko sustatzaileak eta Araceli Markotegi ikuskaria, eskubian eserita.

niako lehen herri galdeketa, Arenys de Munt-eko galdeketa-aren bultzatzaile eta koordinatzaile.

Anna Arqué. Kataluniako kontsul-taren aldeko koordinakunde nazionalen komunikazio eta nazioarte batzordeetako arduduna.

Tatjana Zdanoka. Letoniakoa. Aliantza Libreko eurodiputatua.

telefonora hots eginez edo 2014a13@gmail.com e-postaren bidez. Martxoaren 22tik 12ra arte aurretik eman ahaliko da aurre-

ko botoa, bai etxean (antolakuntzako kide batek hautestontzia eramanen luke) edo hautes-lokalean. Jakina, botoa sekretua da.

Boluntarioen beharra

A13 ekimenak herri galdeketa ahal izateko boluntarioak behar ditu hurrengo batzordeetan aritzeko: mahai elektoral, informetika, segurtasuna, aurretiko boto sekretua, komunikazioa, begiraleak eta ekitaldiak. Interesatuak 620 378 338 telefonora hots egin edo 2014a13@gmail.com e-postara jo.

A13ko egitaraua

Ostiralean, 20:30ean, plazan jarrirako pantaila batean aurkeztuko dute ekimeneko kideak apirilaren 13rako egitaraua. Aurreratu dutenez, herri kirolak, kale animazioa, herri-bazkaria, kontzertua eta beste izanen dira.

SAKANA

Bierrik Fundazioaren Beleixeguaixe Txartelarekin martxoaren 28tik 30era erosketak egiten dutenek pare bat sari ederren zozketan sartuko dira

Bierrik fundazioak bere babesle diren 1.570 sakanarrei heldu den asteburuan Beleixeguaixe txartela erabiltzea gonbidatu ditu. 80 establezimendu baino gehiago erabili dezakete txartela eta haientan hainbat deskontu eta abantaila eskuratzeko aukera dute. Gainera, martxoaren 28tik 30era Beleixeguaixe txartela erabiltzen dutenek bi sari zozketan sartuko dira: batetik, bi lagunendako bazkaria Astizko aterpean eta Mendukilo kobazulorako bisarrena eta, bestetik, Iortia kultur gune-ko zinemarako hilabeteko bi abono eta Beleixeguaixe txartel bat opari sari zozketan sartuko da.

Erosketa handia edo txikia eginda ere, Bierrik fundazioak 1.570 babesleek krisi garai honetan Sakanako establezimenduei bultzada emateko aukera izanen dute. Fundazioak kudeatzaile Ainhoa Urretagoiena Arruabarrenak esan duenez, "ibarrean erosiz sakanararen arteko harremanak sustatzen dituzte, herriei

Sakatxartela



Heldu den asteburuan Beleixeguaixe txartela ateratzeak abantailaz aparte saria eman dezake.

aberastasun soziala emanez". Eta gaineratu du, "herri osasuntsu batek gertuko merkataritza sarea izan behar du, herritarrek eta establezimendu txiki eta ertainek osatuta dagoena. Guztien artean herriari bizitza eta kolorea ematen diogu".

Txartela

Bierrik fundazioak 19 urteko ibilbidea egin du Sakanan euskarazko hedabideak sustatzen. Guaixe astekaria eta Beleixeguaixe (FM 107,3) dira horren adierazle.

Bierrik fundazioak sustatuta, Beleixeguaixe Txartela hiru helbu-

rurekin sortu zen. Alde batetik, fundazioaren beraren auto-finantziazio maila igotzea. Bestetik, Sakanan bertan erosketak egitera bultzatzea eta bertako komertzioak sustatzea. Eta, azkenik, Bierrik fundazioak bazkideei abantailak eskaintzea. Egun, 80 establezimen-

Beleixeguaixe txartela lortzeko

Deitu ondoko telefonoetara: 948 564 275 eta 948 562 107 edo www.guaixe.net atariansartu eta Bierrik Fundazioak bazkide/babesle egin. Urteko 50 euro ordaindu behar dira. Erosketak Sakanako dendetan egiten dituzten babesleek erraz errekuperatu dute babesletzagatik ordainduta. Gainera, errenta aitopenean %25a desgrabatuko du foru administrazioak.

Sakatxartel asteburuak

Marsuak 28-30
Maiatzak 30-Garagarrik 1
Gailak 25-27
Irailak 26-28
Azaroak 28-30

du baino gehiago abantaila interesgarriak eskuratzeko aukera ematen du txartelak, deskontu edo bererapen modura gahienetan.



GRUPO TANATORIO

IRACHE

TANATORIO TALDEA

948 564 355

679 160 116

(24 ORDUZ)

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

www.tanatoriosirache.com



Naiara Goikoetxea Arteta

III. urteurrena

Zure irribarreak bizirik dirau
gure artean,
bizitako une gozo haiek gogoratu.
Ikusi arte.



Francisco Javier Lazkoz Flores

III. urteurrena

Dagoeneko hiru urte pasa dira,
baina ez zaitugu ahaztuko.
Gure bihotzean beti
izango zaitugu.

Lakuntzako fameliye

Naiara Goikoetxea Arteta

Nire maitia,
nire maite xamur,
xarman, zoragarria.
Nire maitia,
hari ikustezin batek
bihotz bakarrean
elkarren ondoan
lotzen gaitu.



Nire maitia,
goizargitik arrats
ilunera
maite zaitut.
Nire bihotzeko
kuttuna,
maite zaitut,
maite zaitut.



Hainbat aukera

Galdetu

948 564 275



Orogarriak egiten ditugu

Nahi duzun argazki eta testuarekin

Guaixe KOMUNIKAZIOA

948 564 275
Foru plaza 23-1
Altsasu
argi@guaixe.net

Naiara Goikoetxea Arteta eta Garazi Garasa Guerrero

Zuek zaituztegu maitiengoak arrosak eguzkia baino, izarrak zerua baino. Eta egunez egun, maitasunez, gure hutsartea betetzen duzue, beti bezala eta betiko.



III. urteurrena

Maite zaituztegu printzesak.
Zuen gurasoak Alfredo eta Grazi, Xabier eta Elena eta anaiak Aitor eta Eneko.

JAIOTZAK

- Miren Aranguren Cabodevilla, martxoaren 7an Uharteko Arakilen.
- Kai Renner Lareki, martxoaren 9an Lakuntzan.
- Adriana Parra Pino, martxoaren 9an Altsasun.
- Ekiñe Villanueva Moscoso, martxoaren 13an Uharteko Arakilen.

Informazio hau epaitegiaren eta udaletan jasotzen da



NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**

Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorian@guaixe.net

lehiaketarako lehiakideak behar dira. Kultura orokorreko galderei erantzun beharko diete. Interesatuak euren datuak eta kontakturako modua hizkarnizka@eitb.com e-postara bidali beharko dute.

Oharrak

Bertso-udalekuak. 5 urtetik 18 urtera www.bertsozale.com web gunearen bidez eman daiteke izena martxoaren 11tik 27ra.

Nafarroan herri komunikabide bat sortzeko. Diru bilketa hasi dute, Aholza behar dugu lelopean. Ekarpentak kontu korrontean (3035 0229 39 2290033933 Laboral kutxa) edo <http://goteo.org/project/aholza-behar-dugu?lang=eu> bidez egin.

Tartalariendako laguntza. Laguntza ekonomikoak Laboral kutxa 3035 0068 08 0680058591 korrontean sartu daiteke.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878,

Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Haurren erritmoak errespetatzen dituen eskola librea nahi baduzu. Deitu 661- 59 04 20 telefonora.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

Informatika - trukea. Informazio gehiago larrezabaldek@inigoaritzka.com

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikan. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com

Opatutakoak / Galdutakoak

GALDUTAKOAK

Oinez ibiltzeko Altus makila gorria galdu zen. Arbizuko Sandindei dermioan otsailaren 23an.Opatu duenak, mesedez, Guaixera hots egin dezala 948 56 42 75.

Ikastaroak

AES. "Oinarrizko enpresa-ingelera", Arbizun, 20 ordu, apirila-ekaina; "Enpresa ingelera II", Arbizun, 70 ordu, iraila-azaroa; "Ingelera elkarriketa praktikak", Arbizun, 40 ordu, azaroa-abendua; "Ekoizpena eta biltegien kudeaketa: denbora eta kostuen murrizketa", Arbizun, 80 ordu, apirila-ekaina; "Planoen interpretazioa eta ordenagailuz lagundutako diseinua", Altsasu, 60 ordu, urria-abendua; "Adimen emozionala", Arbizun, 30 ordu, iraila-urria; "ETEei aplikatutako trebatasun pertsonalak", Arbizun, 35 ordu,ekaina; "EXCEL 2010: informazioaren kalkulua eta kudeaketarako baliabideak", Altsasun, 40 ordu, apirila; Informazio gehiago: 948 46 83 07 eta formacion@aesakana.com.

Cederna.Nire zaletasuna nire lanpostu bihurtu, Altsasun, maiatzak 8-15-22 eta 29, ekainak 5; Zuzenean saltzeko estrategiak, Arbizun, urria/azaroa zehaztu gabe.Argibide gehiago: Oskia Lazkoz sakana.admon@cederna.es - 948 56 70 10.

IFESek hainbat ikastaro antolatuta ditu Iruñean.Informazio gehiago www.ifes.es, 948-15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea <http://www.ifes.es>

Forem Navarra - CCOO ikastaroak.Informazio gehiago: www.foremnararra.org

AIN-consulting ikastaroak.Informazio gehiago: 948 42 11 23 eta formacion.ain.es/

Lehiaketak

Saharari kantari 2014. Saharar herriaren egotz sentsibilizatzea helburu duen kantu lehiaketa. Talde eta bakarlariek euren kantak martxoaren 28ra arte auzteztu ditzakete. Informazioa www.sahararikantari-2014.saharaelkartea.org

ETBko lehiaketarako lehiakideak.Hizkarnizka

Bederatzi antzezle txiki



Martxoko aurreneko lehen egunetik, larunbatero, 6 eta 12 urte bitarteko bederatzi urdiaindar herriaren etxean biltzen dira. Zoila Berastegi irakaslearekin batera, antzerki teknikak ikasten hasi dira eta hala segituko dute garagarrila akaberara arte, larunbatero, 12:00etatik 14:00etara. Ikastaro akaberan litekeena da ikasitakoaren erakustaldia egitea.

Haurrendako antzerki tailerraren proposamena guraso talde baten ekimenez sortu zen. Futbola eta ingelesaz aparte sormen arloan Urdiainen eskaintzarik ez zegoela eta zulo hori estali beharraz hizketatu ziren. Udalarekin hitz egin zuten eta haren bidez egin zen eskaintza, bai haurrendako bai gaztetxoendako. Azken horien taldea ez da atera baina antzezle txikien baratza sortu da Urdiainen.

Haize Berriak Natxo de Feliperekin

Azken entseguetako urdurtasuna airean, guztia behar bezala fintzen ari dira Sakana banda osatzen duten musikariek. Izan ere, aste eskasagelditzen da bandaren emanaldi berria musuttzerako. Martxoaren 29an, larunbatean, 17:00etan eta 18:30ean, Sergei Prokofiev-en *Peru eta Otsoa* ipuin musikatua emanen du bandak. Izenburuak dioen moduan Peru izeneko gaztetxo baten ibile-

rak kontatzen ditu obrak. Haize Berriak bandako instrumentu talde bakoitzak ipuineko pertsonaia baten papera jokatu du. Sakana-ko musika bandak ipuin musikatu horren emanaldietarako Oskorriko kide den Natxo de Feliperen laguntza aparta izanen du. Luis Orduñazuzendariak gidatuta Haize Berriak bandako kideak guztia behar bezala prestatzen ari dira ikuskizun handi bat eskaintzeko.



Figuraren muina



Izenburu hori eman dio Irurtzongo pintura tailerrak hilabete honetan La Tahonan eta Pikuxarren jarri duen erakusketari

Lastaitetik maiatzera, astean bitan (asteazkenetan (19:00etatik 20:30era) eta ostiraletan (15:30etik 17:00etara) biltzen segituko dute. 13 urte baino gehiago horrela dabil hamaboskote irurtzundar bat. Gehienak emakumeak. Udalak antolatuta, Isabel Garcia irakaslearekin pinturako teknikak ikasten ari dira. Baina ikasleek ere elkarri laguntzen diote.

Hirugarren urtez jarraian pintura tailerreko kideak Emakumeen Jardunaldiak egitarauan parte hartzen ari dira. Haien lanak, pinturak, ikusgai jarri dituzte Irurtzongo bi espazio publikotan. Handik koadroak ikustera pasa dire-

nak harritu egin dituzte. Orain arte olio pinturarekin egindako lanak jartzen zituzten ikusgai. Aurtun, berriz, ohol gaineko teknika lehorra erabili dute margolanetarako. Aglomeratu gainean ikatza, pastelak eta bestelako teknikekin biluziak margotu dituzte.

Florentziara

Pasaden urteko asaltubespena da, baina bestela urtero pintura tailerreko kideek bidaia bat egiten dute. Aurtun Aste Santuan lauegunetarako Florentziara joanen dira. Toskanako hiriburuko kultur eskaintzaz gozatzeko aukera izanen dute, baina aisiarako tartea ere hartuko dute.

Munduko musiken euskal jatorriaren teoria argituko du Demode Quartetek



Larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean

Laukote iruindarra bihar Altsasura etorriko da bere teoria azaltzera: euskalgiltzak, gakoak eta esentziak eragina izan dute gainontzeko kulturetan. Hori ziurtatu ahal izateko taldekideak jantzi egin dira eta gainontzeko kulturen ausardiaz ohartu dira. Hala, Demode Quartet taldeak countryaren, jazzaren, sanbaren, bollywoodaren

edopop modernoaren jatorria Euskal Herriko mendi, portu eta ibarretan opatu du.

Horixe frogatzera etorriko dira bihar Altsasura Mikel de la Fuente, Joli Pascualena, Iker Huitzi eta Mikel Espinal. Laukoteak *Epa!* izenburua eman dio bere bigarren ikuskizunari eta a capella abestuz, umorea tartekatuz, euren teoria azaltzeko beharrezko azalpen eta adibide guztiak emateko prest etorriko dira.

Txistuaren doinu gozoaz

Belarriak goxatuta. Halaxe atera ziren Iortia kultur gunetik larunbatean areto erdia bete zuten ikus-entzuleek. Burundar Txistulariek *Hastapenak* izenburuko kontzertuan XVI mendetik XX. mendera doan musika ibilbidea ondu zuten euren programan. Eszenatokian 22 musikari izan ziren: 5 silbote, 9 txistu lehen, 7 txistu bigarren eta perkusioa. Gainera, Xabier Gartzandia kantariaren eta Irune Lizarraga eta Iñaki Agirre dantzarien laguntza izan zuten.



Eskuratu GUAIXEekin Lorenzo Ondarra bakaikuar organo jolearen diskoak

9 €
bazkideak

10,50 €

taldeendako eskaintza

8 €
10 CD eskatuta

ESKAERAK: apirilaren 4a baino lehen egin 948 564 275- 948 562 107 telefonoetan edo bierrik@guaixe.net helbidean

Lehenengo eskaerak opari bat jasoko dute

Prezioetan BEZ barnean daigo

